



**Arartekoaren 8/2011 gomendio orokorra, azaroaren 15koa.**

**Banandutako gurasoek jaso behar duten informazioa, administrazioak haien seme-alabez dituen datuei dagokienez, eta aurkeztu behar dituzten agiriak.**

### **Aurrekariak**

1. Bananduta dauden eta seme-alabak kargura dituzten pertsonak jarritako kexak izapidetu eta ikertzeko esparruan, pertsona horiek, guraso diren aldetik, legeak esleitzen dizkieten eskubideak eta betebeharrak baliatzeko dituzten zailtasunen berri izan dugu.

Horietako batzuen arrazoiak: bikotea haustea, bere horretan, ez da egoerarik aldekoena lehengo bikotekideek elkarrekin dituzten seme-alaben gaineko informazioa eta erabakiak parteka ditzaten. Kasu honetan, banantzeari lotutako zailtasun konsubstantzialak dira eta horien aurrean bi alderdien erantzukizuna apelatu behar da, adingabearen onerako, komunikazioaren inguruan ahalegin handia egin dezaten; hori guztia auzitegiek desadostasun kasuetan xedatzen dutenaren kaltetan izan gabe.

Beste batzuk, ordea, banandutako pertsonak guraso-ahala baliatzerakoan administrazioak batez ere -beti ez bada ere- hezkuntza eta osasunaren arloan ezartzen dituen baldintzatzaile batzuen ondorioz sortzen dira. Ebazpen honen xedea da zailtasun mota horiek eragiten diguten hausnarketa jakinaraztea eta botere publikoen jarduteko esparru guztietan aipatu zailtasunak gainditzeko neurriak proposatzea.

2. Arlo honetan jasotzen ditugun kexen kasu paradigmatico bat da erakunde honetara jo zuen eta bi haur dituen (semea eta alaba) ama baten kasua. Interesdun hori ez zegoen ados haren haurren ikastolako jarduera batekin.

Erreklamatazaileak guraso-ahala partekatzen du seme-alaben aitarekin. Aitak dauka esleituta haurren zaintza eta babespea oso-osorik, banantzeko prozesuaren zioz hartutako guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezarri zituen epaiaren arabera. Andre horrek ikastolari behin baino gehiagotan eskatu dio eskola kalifikazioen orria bidal diezaioten eta haren seme-alaben tutoreek ikasturte bakoitzeko elkarrizketak egitea aurreikusi duten unearen berri eman diezaioten, irakaskuntza bilakaeraren inguruko informazio pertsonalizatua edukitze aldera, baina ez du lortu.

*Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Arartekoaren esku-hartzearen ondotik, zentroak erreklamatazaileari haren seme-alaben ebaluazio txostenen kopia bidaltzeko konpromisoa hartu zuen, baita ordutik aurrera jakinaren gainean jartzeko ere "conforme a los criterios establecidos por la Dirección de Centros Escolares, con fecha de 16 de junio de 1997. Más concretamente siguiendo los criterios establecidos en el punto 5 de las instrucciones".*



3. Mahaigaineratutako gaia behar bezala konpondu zela alde batera utzita, Hezkuntza Sailak halako egoeratan aintzat hartzen dituen zuzentarauak ezagutu ahal izan genituen, aurreko puntuan adierazitako agirian jasotakoak. "Banandutako edo dibortziatutako gurasoei haien seme-alabek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan duten ebaluazioaren emaitzen berri emateko instrukzioak" dira.

Instrukzio horiekin bat etorritz:

- 1. Seme-alaben legezko zaintzarik ez duen banandutako edo dibortziatutako gurasoak ebaluazioen berri jaso nahi badu, seme-alabak ikasten duten ikastetxeari eskatu behar dio hori. Zuzendariari zuzendutako idatzi baten bidez egin behar du eskaera, eta banantze-dibortzio- edo baliogabetasun-epai judizialaren kopia fede-emailea ere bidali behar du, edo, dagokionean, banantzea egiaztatzen duen notari-agiria, edo, amaitu gabe dauden prozesuen kasuan, behin-behineko neurriak hartzen dituen epailearen agiria.*
- 2. Banantze-, dibortzio- edo baliogabetasun-epai judizialak espreski aginduren bat emango balu darabilgun gaiari buruz, ikastetxeek epaiak diona bete behar dute zorrotz. Beste egoera batzuk fede-emaileki egiaztatzeko agirien kasuan ere modu berean jardun behar da.*
- 3. Epaiak edo agiri bidez hartutako neurriak ez badu darabilgun gaiari buruz berariaz ezer esaten, ikastetxeak seme-alaben eskola-errendimenduaren berri eman behar dio ikaslearen legezko zaintzarik ez duen gurasoari, beti ere, guraso horri ez badiote guraso-agintea kendu. Ikastetxeek ez diote guraso-agintea kendu dioten gurasoari berri emango, ez bada epailearen aginduz.*
- 4. Legezko zaintzarik ez duen gurasoak informazio zuzena jasotzea eskatzen badio ikastetxeari aurreko ataletan esandako eran eta baldintzetan, ikastetxeak eskaera horren berri eman behar dio legezko zaintza duen gurasoari. Gainera, informazioa eskatu duen gurasoak aurkeztutako agiriak ere bidali behar dizkio bi helburu hauekin: batetik, beste gurasoa jakinaren gainean egon dadin, eta, bestetik, ziurtatzeko aurkeztutako epaia edo agiri fede-emailea bat datorrela familia-harremanak benetan arautzen dituen agiriarekin eta, epai judizialaren kasuan, jakiteko aurkeztutako epaia dela eman den azkena eta, ondorioz, baliozkoa.*
- 5. Zaintzarik ez duen ezkontidearen eskariaren berri beste ezkontideari eman ondoren eta, beti ere, eskatzaileak aurkeztutako agiria indarrean dagoenarekin bat badator, behin 10 egun pasata, ikastetxeak eskatzaileari agirien bidez informazioa ematen hasi behar du. Ikastetxeak era honetan eman behar dio informazioa: ikaslearen zaintza duen pertsonari ematen dizkion agiri informatzaile guztien kopia bidali behar dizkio jaso izanaren adierazpena duten gutun ziurtatuen bidez. Aldi berean, egokitzen duten informazioa eman diezaiokete ahoz irakasle tutoreak eta beste irakasleek.*



6. *Zehaztu dugun egoera hau berez luzatuko da denboran zehar, baldin eta gurasoetako batek guraso-aginteari edo zaintzari buruz aldaketak izan direla-eta, agirietan oinarritutako elementu berririk aurkezten ez badu.*"

4. Hezkuntza esparrua ez da izan banandutako gurasoek emantzipatutako seme-alaba adingabeen gaineko informazioa eskura dezaten aukera arautze aldera zuzentarauak xedatu dituen administrazio jardunaren esparru bakarra.

Hala, adibidez, Osakidetzako Dokumentazio Klinikoaren Batzordeak 2004ko uztailean "Lehen mailako atentzioko Dokumentazio Klinikoa Eskuratzeko Prozedura: erabilera ez asistentzialerako" izeneko prozedura prestatu zuen. 5. kapituluaren a) idatz-zatiak, adingabe baten informazio medikoa eskuratzeko eskaeraren aurrean jarduteko modua arautzen duenak, adingabe hori eskatzailea ez dela kontuan hartuta eta haren baimenik gabe, honako hau adierazten du: *"Tienen derecho de solicitud de acceso a la HC (historia klinikoa) del menor quienes ejerzan la representación legal: los padres, no privados de la patria potestad, o en su defecto el tutor o defensor judicial, o la entidad pública correspondiente que asuma la tutela o guarda"*. Esku artean dugun kasurako, baldintzen atalean hauxe eskatzen da. *"Acreditar que el solicitante es su representante legal. En el caso de los padres aportar el Libro de Familia. Si están separados judicialmente, la sentencia judicial que determine la custodia del menor; si no tiene la custodia, documento que acredite la patria potestad"*.

5. Hiru arrazoiren ondotik mahaigaineratu dituzte kexak erakunde honetan administrazioak banantzeko prozesuen gaineko datuak aurkez ditzaten eskatu dien pertsonak, hain zuzen, dagoeneko azaldutako moduan:

- Alde batetik, esan dute banantzeko epaiak bere horretan ez diela aukera ematen guraso-ahala mantentzen dutela egiaztatzeko; kontuan hartuta ohikoa dela horren inguruko pronuntziamendurik barne ez hartzea, pronuntziamendu judizialak ez baitu hizpide izan.
- Bestetik, ondorio horietarako banantzeko epaia onartzen den kasuetan, bertan jasotako gertakariak, oro har, erabat pertsonalak dira. Horregatik, zalantzan jartzen dute haien intimitatea modu horretan agerian jarri behar ote duten, kontuan hartuta, guraso-ahala ez duela epai batek ematen, bai, ordea, legeak, guraso diren aldetik. Hortaz, ondorio horietarako garrantzitsua izango litzatekeen ebazpen bakarra ahal hori kendu liekeena izango litzateke. Hala ere, uste dute banantzeko epaiak horren inguruko pronuntziamendu judiziala barne hartzen duenean ere, legeak ez duela xedatzen banantzearen ondoriozkoa bailitzan, eta banantzea bideratu duen auzitegiak guraso eta seme-alaben arteko betebeharren ez-betetzea jartzen duela agerian. Gogora ekarri dute ez-betetze hori ezkondata daudenek, bananduta daudenek edo ezkongabe daudenek egin dezaketela. Beraz, banantzea



bere horretan ezin da izan jazo izanaren adierazle. Amaitzeko, esan dute pertsona batek ez duela zertan egiaztatu behar haren seme-alaben guraso-ahala mantentzen duenik ahal hori osatzen duten eskubideak eta betebeharrak modu arduratsuan baliatzeko, adibidez, haien osasunagatik edo bilakaera akademikoagatik kezkatzea.

- Halaber, haien intimitatea babestea herritarren kexek hizpide duten gaia da eta, beste arrazoi batzuegatik, administrazioaren aurrean haien banantze edo dibortzioaren ondorio ekonomikoak eta pertsonalak egiaztatu behar dituzte. Ildo horretan, eskatzen dute, ebazpen judiziala oso-osorik aurkeztu beharrean, ondorio horietarako xedapenen zatia aurkeztea nahikoa izan dadila.

Jarraian, kontu horiek guztiek eragin diguten hausnarketa planteatuko dugu aipatu hiru alderdien gaineko administrazio jardura hobetzeko gomendio batzuekin amaitzeko.

## Gogoetak

1. Dagoeneko ikusi dugun moduan, zenbait instrukziok xedatzen dute pertsona bat bananduta dagoenean haien seme-alaben guraso-ahala duela egiaztatu behar duela administrazioak ahal horrek dakartzan eskubideak eta betebeharrak baliatzen utz diezaion. Hortaz, lehenengo eta behin, eskakizun horren legezko babesa zein den pentsatu behar dugu.

Hala jardutean, administrazioak zenbait adingaberen datuak dituela kontuan hartuta, adingabe horiek babestu nahi ditu, horien berri legezko ordezkariak bakarrik izan dezan. Egia, ordea, honako hau da: adingabearen gurasoak bananduta ez daudenean, hizpide ditugun zuzentarauek, ondorio horietarako, ez diete behartzen adingabearen seme-alabatasuna ez den beste ezer egiaztatzen. Banantzerakoan bakarrik behartzen zaie seme-alabei buruzko neurriak zehazten dituen ebazpen judiziala edo notario-agiria aurkeztera eta, osasunaren esparruan, jagoletza ez duen gurasoak "guraso-ahala egiaztatzen duen agiria" ere aurkeztu beharko du.

Eskakizun horrek duen logika bikoitza da: alde batetik, seme-alabak haren kargura dituen pertsona baten banantzea ez da bere horretan adierazle nahikotzat jotzen guraso-ahala kentzeko legezko kausa batean sartuta egoteko eta horrek hala ez dela bermatzen du, banantzerik jotzen ez denean, beharrezkotzat jotzen ez diren kautelen bitartez; bestetik, aipatu adierazlea indartu egiten da, gainera, seme-alaben zaintza beste gurasoaren esku utzi bada.





Erakunde honen ustez, azaldutako logika, azken batean, administrazio jarduerak barne hartu behar ez dituen aurreiritzien arabera da, ez baitute nahitaezko legezko euskarririk edo euskarri jurisprudenzialik, ondoren adieraziko dugunarekin bat etorritik.

2. Guraso-ahala (Kode Zibilaren 154. artikuluan eta hurrengoetan arautua) gurasoen eta seme-alaben arteko harremanaren legezko ondorioa da. Titulartasuna bi gurasoei batera dagokie eta zenbait betebeharrak eta ahalmenak dakartza: alde batetik, seme-alabak zaintzeko betebeharrak, une oro haiek norbait egoteko, elikatzeko, hezteko eta erabateko prestakuntza ematen saiatzeko eta, bestetik, horiek ordezkatu eta haien ondasunak kudeatzeko.

Ondorioz, kontrakoa agerian jartzen ez den bitartean, pentsatu behar da emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeak bi gurasoen guraso-ahalaren mende daudela eta guraso horiek eskubidea daukatela haien seme-alaben hezkuntza bilakaeraren, osasunaren edo herri-administrazioek duten eta erantzukizun horiek baliatzeko garrantzitsua izan daitekeen datu ororen gaineko informazioa jasotzeko.

Noski, adingabearen interes gorenari lehentasuna emateko beharrak justifikatzen du administrazioak, gurasoen arriskuagatik adingabea arriskuan egoteko edozein adierazleren aurrean, bermatu behar duela gurasoek ez dutela epai bidez guraso diren aldetik dituzten betebeharrak eta eskubideen baliatzea mugatuta.

Gurasoei guraso-ahala erabat edo zati batean ken dakieke horri atxikitako betebeharrak ez betetzeagatik (Kode Zibilaren 170. artikulua) eta hala adostu behar da banantzeko epaian prozesuan horretarako kausa agerian jartzen denean (Kode Zibileko 92.3 artikulua). Baina bide prozesal hori egoteak ez du esan nahi guraso-ahala kentzea (jazotzen den salbuespenezko egoeratan) bikote bat banantzearen ondoriozkoa denik, bai, ordea, bikotekideetako bat aita edo ama orori dagozkion betebeharrak larriki betetzen ari ez dela. Banantzeak, bere horretan ez du ez-betetze horren arriskua handitzen eta ez da horren adierazle ere, eta elkarrekin bizita, bananduta, ezkondu eta egonda edo egon gabe gerta daiteke. Beste modu batera esanda: legearen ondorioetarako, pertsona bat ez da ama edo aita hobe ezkondu, bananduta edo ezkongabe egoteagatik.

Horretatik guztitik ondorioztatzen da, adingabe baten seme-alabatasuna dagokion erregistro agiriarekin egiaztatu ondoren, ez dagoela legezko babesik adingabearen gurasoei guraso-ahalaren beste frogak eskatzeko, elkarrekin bizi diren edo ez aintzat hartu gabe. Are gutxiago eskatutako agiriak -adibidez, banantzearen epaia-, datu oso-oso pertsonalak barne hartzeaz gain, ez du zertan jaso behar horren inguruko pronuntziamenturik eta, gainera, kasu ia gehienetan ez du kontu horren gaineko ezer aipatzen. Eskolaren esparruan, gainera, emandako zuzentzauek ikuspegi akats bat egin dute, hain zuzen, xedatzen dutenean, azken kasu honetan, aurkeztutako agiriak jagoletza ez duen





gurasoarekin egiaztatu behar direla, familia harremanak benetan zuzentzen dituela bermatzeko. Izan ere, egiazki bermatu beharko litzatekeena ez da horrenbeste hizpide dugun epaia banantzeko prozeduran emandako azkena den (ondorio horietarako garrantzi gutxiko datua izan daiteke); bai, ordea, ezein auzitegi ez duela mugatu guraso-ahala erabat edo zati batean, dela prozedura horren edo prozedura zibil edo penalaren ondotik. Kontuan hartuta egiaztapen horrek muga hori bakarrik izan dezakeela hizpide, jagoletza ez duen gurasoarekin egindako kontsultak ez luke ezertarako balioko, horrek hori dagoela alegatuz gero, ez balu kasuan kasuko ebazpenarekin egiaztatu beharko. Hala, lortu nahi zen bermearen ondorioetarako, ebazpen hori dagoenean, banantzeko epaiak garrantzi gutxi dauka; eta ebazpen hori ez dagoenean, berriz, jagoletza ez duen gurasoarentzat ez da nahikoa kasu ia gehienetan. Egoera horretan, ez dirudi arrazoizkoa denik aurkezpenarekin jarraitzea. Horregatik, gauza berak bermatuz, azaldutako kalteak saihestuko lituzkeen beste bide bat gomendatuko dugu: familia-liburua edo erregistroko antzeko agiriak nahikoa izatea emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeen guraso-ahala egiaztatu behar duten gurasoentzat, elkarrekin bizi diren edo beste gurasoarengandik bananduta dauden aintzat hartu gabe. Eta, bi kasu horietako edozeinetan, behin-behineko muga hori alegatzen duenak egiaztatu behar du.

3. Orain arte azaldutako irizpideak baliiodunak dira erabaki edo ebazpen judizialaren bitartez adingabeen zaintza eta babespea bi gurasoek edo batek duen alde batera utzita. Azken kasu horretan, zenbait egoeratan seme-alabak harekin dituenak, bakar-bakarrik, guraso-ahalaren baliatzeari dagozkion erabakiak hartuko ditu, Kode Zibilaren 156. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik. Hala, adingabearen eguneroko bizitzaren beharrezko orekaz arduratu nahi da baina guraso-ahalaren titulartasunari eragin gabe, bi gurasoek berdin-berdin edukitzen jarraituko dutena esanbidezko ebazpen judizialaren bitartez mugatzen ez bada.

Ondorioz, adingabeen zaintza eta babespea gurasoetako bati bakarrik emateak ez du esan nahi beste gurasoari guraso-ahala kentzeko kausa batean sartuta dagoenik, ezta ahal horren titulartasuna erabat edo zati batean mugatuta dagoenik ere. Horregatik, ez du zertan izan auzitegiek emandako balorazio baten (zein guraso gaiago den dioena) araberakoa. Kode Zibilaren 92.8 artikulua arlo hori arautzean dio nahikoa dela alderdietako bat zaintza partekatze prest ez egotearekin, zaintza hori aitari edo amari oso-osorik eman diezaioten, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Aztertu ditugun espediente askotan egiaztatu ahal izan dugunaren arabera, egoerak horrek beste gurasoari, haren borondatea alde batera utzita, ahalmena edo banantzea baino lehen seme-alabekin emango zukeen denbora kentzen dio.

Edozelan ere, seme-alaben egunerokotasunean jagoletza ez duen gurasoaren presentzia epai bidez onartutako komunikazio araubide baten bitartez erregulatzen bada ere, hori ez da muga bat guraso-ahalaren titular den aldetik dagozkion eskubide eta betebeharrei dagokienez. Edukia Bilboko Lehen



Auzialdiko 6. zk.ko Epaitegiaren honako pronuntziamendu honetan islatzen da, horren harira ematen duen ebazpenen xedapenetan gehitutakoa:

*“Se atribuye a D. \_\_\_\_\_ la guarda y custodia de \_\_\_\_\_, siendo la patria potestad, en su titularidad y ejercicio, compartida por ambos padres.*

*El ejercicio conjunto de la patria potestad por ambos progenitores implica que todas las decisiones de relevancia que afecten a los hijos habrán de ser adoptadas por los dos progenitores de mutuo acuerdo, resolviendo el Juzgado en caso de discrepancia.*

*Son decisiones comprendidas en el ámbito de la patria potestad, que habrán de tomarse en la forma expresada, las que se enumeran a continuación con carácter indicativo: a) el cambio de domicilio del menor fuera del municipio de su residencia habitual, así como su traslado al extranjero, salvo viajes vacacionales; b) elección inicial de Centro escolar y cambio del mismo; c) determinación de las actividades extraescolares o complementarias; d) actos médicos que conlleven intervención quirúrgica o tratamiento médico de larga duración y no revistan el carácter de urgentes; así como los de carácter psicológico; e) celebraciones sociales y religiosas de relevancia, tales como Bautismo, Primera Comunión y actos similares de otras religiones.*

*El progenitor no custodio tiene derecho en todo caso a obtener información sobre: a) la evolución escolar de sus hijos y participar en las actividades tutoriales del Centro escolar; b) el estado de salud y tratamientos médicos de sus hijos.”*

Beste kontu bat da, gurasoen artean jazo daitezkeen komunikazio zailtasunen ondorioz, zaila dela zenbait kasutan aldi berean deitzea informazio bat emateko edo biek aldi berean erabaki bat har dezaten eskatzeko. Halakoetan, administrazioak biek in modu berean, beharrezkoak ez diren tentsioak saihestuz, jokatzeko aukera ematen duten formulak arbitratu beharko ditu. Hala ere, zailtasun praktiko horiek konpontzeko beharrak ez du justifikatzen guraso-ahalaren berezko ahalmenak mugatzea, ezta pertsona batek, bananduta egoteagatik edo haren seme-alaben zaintza ez edukitzeagatik, horiek baliatzeko seme-alaba horien aita edo ama dela egiaztatu behar izatea ere.

4. Orain arte azaldutakotik ondorioztatzen da administrazioak banandutako gurasoei eman behar dien tratua seme-alabak kargura dituzten gainontzeko pertsoneri emandakoaren bera izan behar dela, zaintza duten edo ez alde batera utzita. Horrek esan nahi duena sakonduz, administrazioaren jarduteko esparru bakoitzean kontuan hartu behar diren bi irizpide identifikatu behar dira:

- Ematen zaien informazioa ez da idatzizkoa bakarrik izan behar. Beharrezkoa iruditzen zaigu, agiri bidezko informazioaz gain -emaitza akademikoen orriak, parte medikoak, etab.-, horiek guztiak egiten dituzten profesionalekin





harreman zuzena eta pertsonala edukitzea. Hortaz, ebazpen honen 3. aurrekarian aipatutako puntuen artean 5. puntuko jarraibideak zuzendu behar dira, irakasle-tutoreek eta beste langile batzuek jagoletza ez duen gurasoari “egoki irizten duten ahozko informazioa” eman “diezaiekeela” xedatzerakoan. Derrigorrezkotasun berarekin eta beste gurasoari egin zaion bezala egin behar da, seme-alaben guraso-ahala duen beste edozein gurasoren baldintza beretan, adingabearen bilakaeraren jarraipena jakinarazteaz gain, guraso izateagatik erabakiak hartzeko nahitaezko irizpideak emateko.

- Guraso-ahalari dagozkion arduren erantzukizunak ez du eskatzen bakarrik gurasoek erabakiak modu informatuan har ditzaten, baita haren erabateko garapenean eragina duten esparru guztietan adingabearekin egon daitezen ere. Guraso bat egoteko beharra, noski, aldatu egingo da seme-alabaren adinaren arabera eta haren adibide bistakoena agian ikastetxeko hezkuntza komunitatea izango da. Eskola Kontseiluaren eta Guraso Elkartearen bitartez familiei irakasleekin eta ikasleekin lankidetzan aritzeko aukera ematen zaie, elkarrekin ikasiz, ideiak eta esperientziak partekatuz. Baina hezkuntza eta osasuna alde batera utzita, adingabea pertsona gisa hezteko espazio eta une asko egon daitezke eta, halakoetan, administrazioari lotutako profesionalekin interakzioan dago: pentsa dezagun kirol, kultura arloko, aisiarako eta gizarte boluntariorako, etab. ekimenetan. Bertan parte har daiteke eta, zalantzarik gabe, haren izaera osatzen laguntzen dute. Horietan guztietan, seme-alaben guraso-ahala duten titularrei (bananduta egon edo ez egon aintzat hartu gabe) informazioa eta partaidetzarako bideak eman behar zaizkie, hain zuzen, kasu bakoitzean seme-alaben erabateko garapenagatik kezkatuta dauden guraso diren aldetik aipatu ahala baliatzeko beharrezkoak direnak.
5. Hala ere, zenbait esparrutan botere publikoek banantze edo dibortzio prozeduretan epai bidez hartutako erabakien edukia ezagutu behar dute haien egitekoa pertsonari dagokionez behar bezala garatzeko. Ondare-educikoak eta seme-alabekin komunikatzeko araubideari buruzkoak ditugu hizpide. Horien eragina ez da hezkuntza eta osasun esparrura mugatzen; besteak beste, zerga ondorioetara, sustapen ekonomikora edo gizarte ongizatera luza baitaiteke.

Kasu horietan aurrekarien 5. puntuan azaldutako kexaren zioen hirugarrena aipatu behar da. Izan ere, interesdunak neurri horiek egiaztatzeko duen modu bakarra horiek dekretuz agintzen dituen epai edo auto osoa aurkeztea bada, pertsona hori behartzen da haren bizitza pribatuko zenbait xehetasun hirugarren baten –hezkuntza edo osasun arloko, Ogasuneko, poliziaren, enplegu edo etxebizitza sustapeneko langilea- esku jartzera eta xehetasun horiek oso intimoak izan daitezke, batez ere, banantze liskartsuen kasuan. Kasu horietan pentsa dezagun bikotearen bizikidetasunean eragina izan zuten inguruabarrak honako hauek izan zitezkeela: gaixotasun bat, alkoholismoarekin arazo bat, desleialtasuna, portaera nahasketak, etab. eta horiek guztiak ebazpenean jaso





ahal dira, jarraitutako tratamenduei edo hirugarrenekin izandako harremani buruzko datuekin batera. Ebazpenak alegazio horiek baloratu edo soilik deskribapen gisa jaso dituen alde batera utzita, bistan da horiek pertsonaren intimitatean eragina daukatela eta, aipatutako administrazioaren ekintzari dagokionez, garrantzirik gabekoak direla. Izan ere, administrazioari epaiaren edukia soilik interesatzen zaio.

Arazo honen irtenbidea bat izan daiteke, ondorio horietarako, administrazioak ebazpenaren epaia bakarrik egiazta dadin eskatzea, hartutako neurriak eta, hala badagokio, haren irmotasuna adieraziz. Dena den, antzeman dugu epaitegiek ez dituztela mota horretako ziurtagiriak egiten. Horregatik, pentsatu genuen gure egitekoa zela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoari hausnarketa hori helaraztea kontuan har zezan epaitegiek ebazpenen froga emateko aukera, alderdi interesdunek hala eskatzen dietenean, azaldutakoari jarraiki.

Gobernu Aretoak erantzun digu eta, hala, erakunde honi 2011ko irailaren 12ko erabakiaren berri eman dio. Horren arabera: *“La Sala toma conocimiento y acuerda difundir la comunicación del Ilmo. Sr. Ararteko a los Sres/as. Magistrados/Jueces y Secretarios Judiciales de la Comunidad Autónoma, a efectos de que su contenido se tenga en cuenta y se contemplen todos los pronunciamientos en la parte dispositiva de las resoluciones que se adopten, de tal manera que las certificaciones que se expidan puedan referirse exclusivamente a dicha parte dispositiva”.*

Aurreko guztia ikusita, erakunde honek honako gomendio hau egiten du:

## GOMENDIO OROKORRA

- Legeak gurasoei (aita eta ama), elkarrekin bizi diren edo ez aintzat hartu gabe, emantzipatu gabeko seme-alaben guraso-ahala ematen die. Banantzeak edo, ondorioz, dibortzioak ez du arrazoi izan behar ahal horren titular gisa dituzten eskubideak (informazioa eta partaidetzarako bideak) mugatzeko, seme-alaben erabateko garapenaren arduraren betebeharra konplitzeko.
- Muga hori bakarrik justifikatuko litzateke epaitegi batek, berariaz, aitaren edo amaren guraso-ahala mugatzea edo kentzea ebatziko balu guraso eta seme-alaben arteko betebeharrak ez konplitzeagatik. Banantzeak eta gurasoetako bati adingabeen zaintza emateak ez du esan nahi aipatu ebazpena hartu denik. Horren ondorioz, seme-alabatasuna familia-liburuaren edo antzeko erregistroko agiriaren bidez egiaztatu ostean, ez litzateke guraso-ahalaren beste egiaztapenik eskatu behar (legearen aginduz bertatik ondorioztatutakoa). Behin-behineko muga alegatzen duenak egiaztatu beharko luke.





- Herri-administrazioek, bakoitzak dagokion eskumenaren esparruan, arlo horretako jarduera azaldutako irizpideetara moldatu beharko lukete. Zehazki, Hezkuntza Sailak 1997ko ekainaren 16ko instrukzioak berraztertu beharko lituzke, bananduta eta dibortziatuta dauden gurasoei haien seme-alaben eskolako bilakaeraren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea onartuz (seme-alaben zaintza daukaten edo ez alde batera utzita), baita irakasleekin elkarrizketak edukitzeko eta zentroko hezkuntza komunitatean lankidetzan aritzeko eskubidea ere, gainontzeko gurasoen baldintza eta arreta berarekin. Osakidetzak lehen mailako erabilera ez asistentzialerako lehen mailako dokumentazioa eskuratzeko prozedurak berrikusi beharko lituzke, baita ospitaleko dokumentazio klinikoaren eskuratzeko ere. Izan ere, ondorio horietarako, adingabe baten legezko ordezkaritza egiaztatzeke baldintzek berberak izan beharko lukete, gurasoak bananduta egon edo ez eta adingabearen zaintza guraso bati edo biei dagokien alde batera utzita.
- Guraso-ahalaren egiaztatzea kontuan hartu gabe, egon badaude beste administrazio jardun batzuk eta horiek behar bezala garatzeko banantzeko edo dibortziazeko prozeduretan, dela ondare izaerakoa edo pertsonala, epai bidez hartutako neurrien edukia zein den ezagutu behar da. Aipatu kasuetan, administrazioak eragindakoei horiek hartzen dituen ebazpenaren epaiaren frogaren bitartez neurriok egiaztatzeke aukera eman beharko lieke, epaia oso-oso aurkeztu beharrean.

